


INTERNETEN

Murgilduta



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Aurkibidea

| | |
|--|---------|
| Aurkezpena | Pág. 3 |
| Sarrera teknologia berriei buruz | Pág. 4 |
| Sare sozialak | Pág. 5 |
| Zer egin daiteke Interneten? | Pág. 8 |
| Interneterako ere adinak daude | Pág. 9 |
| Teknologia berriak ondo erabiltzeko aholkuak | Pág. 10 |
| Eta pribatutasuna? Babestu zure burua | Pág. 12 |
| Intereseko orrialde batzuk | Pág. 14 |
| Glosarioa | Pág. 16 |



Aurkezpena

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek (IKTB) guztia aldatu dute: bizimodua, lan egiteko modua, ekoiztekoa, elkarrekin komunikatzekoa, erostekoa, saltzekoa, irakastekoa, ikastekoa... Inguru guztia aldatu egin da. Komunikabide eta teknologien eraginak pixkanaka-pixkanaka bizitzako zenbait espazio konkistatuz joan da: aldatu egin ditu gure pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko moduak.

Kontuan hartuta gutariko askorentzat Internet eta sare sozialak mundu ezezagunak izan daitezkeela, espero dut gida honek mundu horretara hurbilarazteko eta gudan eragin ditzaketen balizko beldurrak kentzeko balio izatea.

Besterik gabe, gida erabilgarri izango zaizuelakoan, agur bero bat.

Ingurumen, Gazteria eta Hezkuntza Arloko Zinegotzi Ordezkatua
Izpta.: Elena Setién Romero and.

Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA · AYUNTAMIENTO

IKTei Buruzko Sarrera

Zer dira IKTak? Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak dira; hau da, informazioa prozesatu, laburbildu, berreskuratu eta aurkezten duten informatika tresnak.

- Telebista, bideojokoak
- Sakelako telefonoa
- Internet
- Sare sozialak

Ondorengo orrialdeetan, Interneten eta sare sozialen mundu korapilatsua lantzen ahaleginduko gara.

Web orrialdeak, txatak, bat-bateko mezuak, posta elektronikoak, sare sozialak... nerabeen bizitzako beste fazeta baten erakusgarri dira. Bide hori erabiltzen dute eskolako zereginetarako informazioa bilatzeko, aisialdi eta denbora librerako aukerak bilatzeko, eta familiarekin nahiz lagunekin harremanetan egoteko, baita pertsona ezezagunekin ere.

Internet eta sare sozialak egunero berritzen dira. Horrela, nerabeek ezin hobeto kontrolatzen duten mundu baten aurrean gaude. Guraso eta/edo tutoreentzat, baina, ezezaguna da. Hala ere, ezin dugu alderdi hori alde batera utzi, eta ondo erabiltzeko beharrezko baliabideak eman behar dizkiegu.

Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Sare sozialak

Sare sozialak agertzearekin batera, komunikatzeko beste modu batzuk agertu dira, eta horiek alde batera utzi dituzte komunikatzeko ohiko moduak. Tresna horiek gero eta garrantzi handiago hartu dute denboraren poderioz, eta ezinbesteko bilakatu dira gaur egungo gizartean, bereziki nerabeentzat.

Adin, gustu eta kezka guztietarako sare sozialak daude. Oso sarri agertzen dira sare sozial berriak, eta sarera konektatzen den edozein gailuren bidez erabil daitezke. Harremanetan jartzeko, partekatzeo, hitz egiteko, adierazteko... pentsatuta daude.

Ezagunen artean, honako hauek nabarmen ditzakegu: Facebook, munduan erabiltzaile gehien dituen sare soziala; Tuenti, nerabeek gehien erabiltzen duten sare soziala; eta Twitter, mezu laburrak eta titularrak igortzeko gehien erabiltzen dena, segundo gutxi batzuen buruan zabaltzeko.



FACEBOOK ikasleei euren artean harremanetan egotea, ikastaroei buruzko oharak elkar trukatzeko eta mota guztietako ikasleen bilerak antolatzea ahalbidetuko zien tresna gisa sortu zen. 2006ko irailean ireki zen jende guztiarentzat, eta urte horretan bertan 140 milioitik gora izan ziren erabiltzaileak.

Nola dabil? Kontu bat sortu ondoren, sistemak esango dizu nork duen dagoeneko zure posta elektronikoko libretako kontaktuen artean Facebookeko profila.

Zure lagunek "onartu" ondoren, euren profila eta bertan jarri duten informazioa ikusteko sarbidea izango duzu, eta gauza bera egin ahal izango dute zurearekin. Dagoeneko baduzu kontua, badituzu lagunak.



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Facebook plataformaren bidez –sare sozial gehienetan bezalaxe-, zuk nahi dituzun datuak jendaurrean jarri eta ikusgarri egingo dituzu. Horrela, honako hauek jendaurrean ikusgai jar ditzakezu: zure jaioteguna, bizilekua, egoera zibila, erlijio edo politika sinesmenak, zure ikasketa profesionala(k), zaletasunak eta abar. Facebookek eta gainerako sare sozialek ere ez dituzte erabiltzaileak behartzen, inola ere, informazioa zabaltzera, eta gainera, baliabideak ematen dituzte profilerako eta datu pertsonaletarako sarbidea izateko pertsonak mugatzeko.

Argazkiak jendaurrean jarri eta parteka ditzakezu. Horrez gain, beste informazio mota batzuk ere parteka ditzakezu; besteak beste, interesgarria edo dibertigarria iruditu zaizun bideo edo albistiren bat jendaurrean jarri, edota hormaren bidez zure lagunekin hitz egin (idatzizko eta ikusteko moduko oharra norberaren lagun sare osorako). Ekintza horiek zure lagun guztiek ikusi ahal izango dituzte. Nahiago baduzu, mezu pribatuak igor ditzakezu erabiltzaile bakoitzak eskura duen korreoko bandejari esker.



Facebooken eta beste sare sozialen arteko ezberdintasun handiena lekuaren dinamismoa da: zuri dagokizun informazioa besterik jasotzen ez duen profil estatikoa izan beharrean, konektatzean, zure lagun guztiek Facebooken duela gutxi egin duten guztiaren berri ematen dizun sarrerako orrialdera iristen zara (euren egoera eguneratu duten, argazkirik gaineratu duten, talderen bateko kide egin diren, ekitaldiren bat sortu duten...).

Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO





TUENTI erabiltzaile kopuru handiena duen Espainiako sare soziala da. Gainerako sareekin alderatuta, parte-hartzaile askoz ere gazteagoen profila du. Plataforma honetara kideren baten gonbidapenaren bidez baino ezin da sartu, eta kide bakoitzak pertsona kopuru oso mugatua gonbidatzeko aukera du. Gaur egun, Tuentik 3 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu.

Tuentiren orrialde nagusia hiru informazio multzotan banatuta dago, eta informazioa hein handiagoan edo txikiagoan egon daiteke ikusgai, erabiltzaileak aukeratzen duenaren arabera. Ezkerraldean, erabiltzailearen argazkia, informazio pertsonala eta bere interesak nahiz zaletasunak aurkituko ditugu. Erdialdean, berriz, bloga, argazkiak eta “Nire taula”. Azken horretan, erabiltzaileak bere mezu pertsonalak utz ditzake. Eskuinaldean, azkenik, eguneratze dataren hurrenkeran (berrienak goian), lagunen zerrenda dago.

Elementu bakoitzaren pribatutasun maila egokitzeko, “Nire Profila” ataletik egin dezakezu. “Nire Profila” orrialdea zenbait ataletan banatuta dago. Atal horiei ikusgarritasun handiagoa ala txikiagoa eman ahal diozu, zure lagunek, zure lagunen lagunek edo erabiltzaile guztiek informazioa ikusgai izan dezaten.



TWITTER doako web aplikazioa da, eta blogen, sare sozialen eta bat-bateko mezuen abantailak hartzen ditu barne. Komunikatzeko bide berri horri esker, erabiltzaileak euren intereseko pertsonekin harremanetan egon daitezke zuzenean, testu laburreko mezuen bidez. Testu labur horiek update edo txio deitzen dira, eta galdera erraz baten bidez egiten dira: zer ari zara egiten?

Erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuen updateak igorri eta jasotzen dituzte mezu laburren bidez (gehienez ere 140 karaktere), webaren bidez, sakelako telefonoaren bidez, bat-bateko mezuen bidez edo posta elektronikoaren bidez.



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Zer egin daiteke Interneten?

Oso modu errazean eskura dezakegu interesatzen zaigun edozein gairi buruzko informazio amaigabea, bidaiak zein irteerak bilatu eta erreserbak egin ditzakegu, musika eta bideoez gozatu, mundu osoko pertsonekin harremanetan jarri...

Ezagunekin berriz ere topatzeko aukera ematen digute, memento bereziak gure bizitzako hurbileko pertsonekin partekatzea, zuzenean komunikatzea, eta abar.

Nolanahi ere, komunikatzeko modu berri horrek abantaila asko eskaintzen dizkigun arren, arreta jarri behar da horrek berekin ekar ditzakeen arriskueta. Zehazki, informazioa, irudiak, bideoak eta abar ikusteko edo jendaurrean jartzeko aukeratik etor daitezkeen arriskuei dagokienez.

Internet gehiegi erabiltzeak ondorioak ekar ditzake osasun fisikoan eta buru osasunean. Arrisku fisikoek egoneko bizitzarekin dute zerikusia (obesitatea, arazo muskulu eskeletikoak, arazoak ikusmenean...) eta kalte psikologikoen, berriz, zerikusia dute isolamenduarekin, gaitasun sozialak garatzeko ezintasunarekin, errealitatearen gaineko ikuspuntu desitxuratuarekin, menpekotasunarekin...).



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Interneterako ere adinak daude

5 eta 8 urte bitartean: Erabilera nagusia jolas interaktiboen bidez ikasteen datza. IKTak ondo erabiliz prebentzios hezteko aukera ematen du bideo, txantilo, jolas erraz eta bestelako bidez. Dosier honen amaieran proposatzen diren web orrialdeetan, eduki horietako asko aurkituko dituzue.

8 eta 11 urte bitartean: Informazioa bilatzen gozatzen dute. Hori dela eta, funtsezkoa da Internet erabiltzeko denbora-tarteak dosifikatzea, eta erabilera onak eta txarrak nahiz beren burua babesteko erabil daitezkeen dinamikak azaltzea.

12 eta 14 urte bitartean: Teknikaren aldetik, ondo ezagutzen dute ordenagailua eta mugikorra. Horren eraginez, oso garrantzitsua da arreta berezia jartzea erabilera arauetan, baita legez desegokiak diren delituak edo egintza moralak egiteak dakartzan ondorioetan ere.

15 eta 18 urte bitartean: Helduak garen heinean, beti egingo diogu jarraipen soila Interneten erabilerari. Horrez gain, helduei dagozkien erabilerak egitera animatuko ditugu, adibidez, txartelak erreserbatu, liburuak erosi, zinemarako eta kontzertuetarako sarrerak eskuratu, etab. Hartara, familiarentzat eta ingurukoentzat interesekoak diren gaiak sustatuko dira.



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Teknologia berriak ondo erabiltzeko aholkuak

Kontrolak eta arauak bat egin behar dute adingabearekin heziketarekin; euren gaitasunak garatzearen alde egin behar dugu, haiek topa dezaten irtenbidea.

Ez dago arau bakarrik, ezta makila magikorik ere: adingabe bakoitza ezberdina da, eta euren ezaugarriei, adinari eta abarri erreparatu behar diegu.

Erabiltzeko tokia eta denbora-tartea: egokia da ordenagailua etxeko toki partekatu batean egotea, ez bere logelan. Hala bada, errazagoa izango da erabilera kontrolatzea. Konektatuta egoteko gehieneko denbora tartea finkatu behar da. Mugak jarri behar ditugu.

Elkarrekin erabiltzea. Komeni da helduek eta adingabeek elkarrekin nabigatzea.

Nabigatzeko moduaren inguruan heztea. Gogoan izan behar dugu gurasoon iragazkiak eta kontrolak aktibatu behar ditugula ordenagailuen eta smartphone telefonoen sistema eragileetan.

Seme-alabak hezi behar ditugu, abusu, jazarpen, matxismo eta/edo sexting egoeretan parte har ez dezaten eta horrelakoak sala ditzaten.

Orrialde interesgarrien berri ematea. Erraz identifika ditzakegun orrialde interesgarri, hezigarri eta dibertigarri ugari daude; horrela jokotuta, sarean aske nabigatzea saihestuko dugu, zenbaitetan nahi ez ditugun orrialdeetara eramaten gaitu eta.

Ez da erraza, baina bizitzako beste arlo batzuetan bezala, gure seme-alabengan arreta jartzeak jokabide aldaketak agerian utz ditzake, eta horien bidez jakin dezakegu zerbait ondo ez dabilela.

Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO



Honako hau azpimarratu behar diegu seme-alabei:

- Ez ematea datu pertsonalak
- Ez ematea maiz e-postaren helbidea
- Kontuz ibiltzea pertsona ezezagunengandik jasotzen dituzten fitxategiekin
- Ez zabaltea inoiz publizitatea dakarten estekak
- Pasahitza sekretua izatea
- Sarean norbaitek enbarazu egiten badie, laguntza eskatzea guri
- Inoiz ez izatea norbaitekin lehen hitzordua bakarka
- Ez fidatzea pagotxeekin eta opariekin.
- Beti izatea konfiantza gugan, pertsona ezezagun bat ez delako euren laguna
- Ez partekatzea inoiz irudi erotikoak, eurenak zein beste norbaitenak izan



Eta pribatutasuna? Babestu zure burua

Zure intimitateari eusteko egin dezakezun onena da zure datu pertsonalak babesteaz arduratzea.

Profila sortzen duzunean, ziurtatu egin behar duzu kontuko pribatutasun parametro guztiak bete dituzula. Zure informazio pertsonala, zure profila, eta zure argazkiak norik ikusi ahal dituen kontrola dezakezu. Erabiltzen duzun aplikazio bakoitzerako sarbidea muga dezakezu, inork ikus ez dezan, zure lagunek baino ikusi ez dezaten, zure sareek eta zure lagunek soilik ikus dezaten, pertsona orok, edota soilik zuk baimentzen dituzun pertsonak.

Hartu kontuan elementu bat argitaratutakoan, argazkiak erantsitakoan edo norbait argazki batean etiketatutakoan, zure lagun batek elementua edo argazkia iruzkina egiten badu, bere lagun sare osoak ikusi ahal izango duela dena delako objektua, nahiz eta zuk hauta dezakezun objektu hori zure lagunek besterik ez ikustea.

Hiru sare sozial horietakoren batean erregistratzeko gutxieneko adina 14 urtekoa da.



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Webkam?

- Erabili webkama soilik konfiantza osokoak diren solaskideekin, eta ez egin horren aurrean jendaurrean egingo ez zenukeen ezer.
- Ez izatea ekipoan software maltzurra edo malware (izan gogoan antibirusak), kamera urrutitik aktibatzea ekiditeko.
- Erabiltzen ez denean, biratu kamera angelu itsu batera, edo ordenagailuan integratuta badago, estali zinta itsasgarriarekin edo antzeko zerbaitekin.

- Ekiditea argazki pribatuak edo informazio pertsonala eman dezaketenak partekatzea. Gogoan izatea ondorioak argazkiren bat sarean jarri aurretik.
- Mugatzea lagun kopurua eta partekatzen dituzten edukiak.
- Ezagutzea eta behar bezala konfiguratzea pribatutasun aukerak.
- Identifikatzea ekintzen ondorioak eta zereginak (euren profilenak eta kasuan kasuko tresnenak).
- Jarrera proaktiboari eustea euren lagunen artean pribatutasuna eta norbere datuak defendatzeko orduan.



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO



Intereseko orrialde batzuk

<http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuzdt/es/>

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orria. Bertan, aditzera ematen dute nola babestu datuak eta pribatutasuna Interneten nabigatzean eta sare sozialak erabiltzean. Tutorial eta eskuliburu oso interesgarriak daude haur eta gazteentzat.

<http://www.ciberfamilias.com/>

Familientzako web orria. Aholkuak ematen dituzte nabigazioa segurua izateko eta seme-alabekin nabigatzeko heziketa irizpideak eskuratzeko, baita lege arloko azalpenak eta aholkuak ere IKTetan gertatzen diren dolozko egoerei eta delituei buruz (ziberjazarpena, sexting, bullying, grooming, etab.). Oso argi azaltzen dute nora jo horrelakoak salatu eta laguntza eskatzeko.

<http://www.chaval.es>

IKTen alderdi dibertigarri, erabilgarri eta segurua nabarmentzen duen familientzako web orria. Horien berri ematen die helduei, heziketan dabilzanei eta haurrei, eta kalitate handiko dokumental, programa eta aplikazioen erreferentziak dituzte. Oso gomendagarria da.

<http://www.ertzaintza.net/>

Ertzaintzaren web orria. Bertan argi azaltzen da zertan dautzan delitu informatikoak. Aholkuak emateaz gain, salatzeko mekanismoa eta arreta on line zein telefonoaren bitartez emateko bidea ezarrita ditu.

<http://menores.osi.es/>

INTECO komunikazio teknologien estatuko institutuaren web orria. Internautaren segurtasunerako bulegoa eskaintzen du, eta adinaren arabera eduki interaktibo oso interesgarriak ditu, 5 urtetik aurrera.



Informazio gehiago:

Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org



ABANTO ZIERBENA

UDALA • AYUNTAMIENTO

<http://www.protegeles.com>

Adingabeak babesteko erakunde erabat profesionalizatua da. Bertan, abokatutzako nahiz psikologiako profesionalak, eta adingabeen segurtasun eta babeseko adituek lanean dihardute gazteentzako, euren familientzako eta ikastetxeentzako “irtenbideak” eskaintzeko, dohainik beti. Web orri horretan, material, baliabide eta gidez gain, mota oroko material eta informazioa eskaintzen dute prebentzioari, babesari eta salaketari buruz, gerta daitezkeen abusu eta delitu zibernetikoen aurrean.

<http://www.pantallasamigas.net>

Web orrian dioten bezalaxe, Pantallas Amigas ekimenaren xedea da teknologia berriak modu seguruan eta osasungarrian erabiltzea sustatzea eta haurrekin zein nerabeekin arduratsuak diren herritar digitalak bultzatzea. Segurua izango da arriskuak saihestu edo ondorioak murrizten baditugu; eta osasungarria izango da norbanakoen eta guztion ongizate fisikoa, mentala eta soziala bilatzen badugu, eta herritarron gaitasun oso-beteak, balioak eta trebetasunak garatzen baditugu (ziberherritarrak).

**Informazio gehiago:**Tel. 94 636 17 37 · www.abanto-zierbena.org**ABANTO ZIERBENA**
UDALA • AYUNTAMIENTO

Glosarioa

CIBERBULLYNGA

Komunikazio sareak (Internet, sakelako telefonoak, online bideojokoak, etab.) beste pertsona batzuk umiliatu, trufatu, difamatu edo jazartzeko erabiltzea. Maila berekoen arteko jazarpena da; tartean heldurik badago, beste ziberjazarpen mota bat da.

GROOMINGA

Helduek gauzatutako egintzak, adingabe baten konfiantza lortzeko edo berekin harremana izateko, Interneteko edozein zerbitzuren bidez. Helburua da sexu mailan asetzea adingabearen irudi erotiko edo pornografiako lortuz, adingabearekin hitzordua prestatzeko eta adingabe sexu abusuaren hartzaile izateko. Sarritan, helduak adingabe baten plantak egiten ditu biktimaren konfiantza eskuratzeko.

SEXTINGA

Nork bere buruari buruzko sexu mailako edukia bidaltzea Interneten bidez. Ohikoena da sakelako telefonoekin eginiko sexu argazkiak bidaltzea. Askotan, groomingaren xedea sexu abusua da, edo behintzat, sexu abusuaren prozesuko bitarteko urratsa izan daiteke.

SEXTORTSIOA

Xantaia mota bat da, eta pertsona bati mehatxu egiten zaio sexu mailako edukia duten bideoak edo argazkiak jendaurrean jarriko direla.

